

## ERAKUNDEAREN DATUAK

<b>1. Erakundearen izena:</b>	MONDRAGON Koop. E.
<b>2. Sektorea:</b>	Zerbitzuak
<b>3. Langile kopurua:</b>	48
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="http://www.mondragon-corporation.com">www.mondragon-corporation.com</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	MONDRAGON Koop. E. MONDRAGON Korporazioaren zerbitzu zentrala da - Zentro Korporatiboa- eta MONDRAGON Korporazioa osatzen duten kooperatibei eta Korporazioa egituratzen duten organoei laguntza ematen die hainbat arlotan: enpresa sustapena, planifikazioa eta kontrola, lankidetzarako finantza erreminten eta bestelako baliabide korporatiboen kudeaketa, diruzaintza, arlo juridikoa, organo korporatiboen administrazioa, heziketa kooperatiboa, berrikuntza eta teknologia, gestio soziala, komunikazioa, kanpo harremanak, nazioartekotze eragiketak, hedapen kooperatiboa, etab. MONDRAGON Korporazioaren irudia eta ordezkartza ere MONDRAGON Koop. E.-k kudeatzen ditu.

## Harremanetarako datuak

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Ander Etxeberria Otadui
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:aetxeberrria@mondragoncorporation.com">aetxeberrria@mondragoncorporation.com</a>
<b>Telefonoa:</b>	688 712 570

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	EM, EZAGUTU MONDRAGON, MONDRAGONeko Esperientzia Kooperatiboa azaltzeko bideo seriea euskaraz (eta ingelesez EXPLORE MONDRAGON eta gazteleraz EXPLORA MONDRAGON).
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b> <b>Zer da? Zertan datza?</b> <b>Nondik dator?</b> <b>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</b>	<p>Hogehitalau kapituluz osatutako bideo serieak MONDRAGONeko Esperientzia Kooperatiboa mundu zabalean modu dibulgatzailean zabaldu nahi du. Proiektua Covid pandemiaren ondoriozko konfinamendu garaian sortu zen. Ia esperientzia Kooperatiboaren hasieratik jende asko gerturaten da gurera MONDRAGONeko kooperatibak zer diren ezagutzera. Pandemian hori posible ez zenez, gu beraiengana joatea erabaki genuen.</p> <p>Gure asmoa seriea mundu guztira zabaltzea da eta edozein pertsonarentzat dago pentsatuta: kooperatibez zerbait dakitenentzat (MONDRAGONetaz bereziki), ezer ez dakitenentzat, izan langile, politikari, kazetari, ikasle, irakasle, ikerlari...</p> <p>Dokumental sorta 10 minutu inguruko 24 kapituluz osatua dago. Kapitulu batzuk gai bati buruzko azalpenak dira eta beste batzuetan aditu bat elkarrizketatzen dugu. Azken hauek bi motatako kapituluak dira: a) gai konkretu bati buruzkoak b) kooperatiba bati buruzkoak bertako kide bat elkarrizketatuz.</p> <p>24 atal horietatik 7 euskaraz grabatu ditugu, 10 gazteleraz eta 6 ingelesez. Beste kapitulu bat pertsona guztien erantzunek osatzen dutenez, hiru hizkuntzak daude bertan. Halaber, kapitulu guztiek azpituluak dituzte euskaraz, gazteleraz eta ingelesez. Aurrerago beste hizkuntza batzuetan ere egoteko gestioak egiten ari gara.</p> <p>Web orri propioa izango du produktuak eta asmoa da aste gutxi barru eskuragarri egotea.</p>

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

<https://exploremondragon.com/eu/>

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA